



# Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo



ERAIKINGINTZA  
ETA OBRA  
ZIBILAK

Profesionaltasun-ziurtagiria  
OBRA ZIBILEKO PROIEKTUEN IRUDIKAPENA  
[3. maila]



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES



kualifikazioen eta  
lanbide heziketaren  
euskal institutua  
Instituto vasco de  
cualificaciones y  
formación profesional



ERAIKINGINTZA ETA OBRA ZIBILAK  
Profesionaltasun-ziurtagiria

# Edukiak

## I PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA

IZENA .....	06
KODEA .....	06
LANBIDE-ARLOA .....	06
LANBIDE-EREMUA .....	06
ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA .....	06
LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA .....	06
GAITASUN OROKORRA .....	06
PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENDA .....	06
LANBIDE-INGURUNEA.....	06
PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENDA ETA HAIEN IRAUPENA.....	07

## II PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAREN LANBIDE-PROFILA

<b>1</b>	1. gaitasun-atala .....	10
	<u>ERAIKUNTZAKO IRUDIKAPENAK EGITEA</u>	
<b>2</b>	2. gaitasun-atala .....	12
	<u>ERREPIDE- ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAK EGITEA ETA HAIEN GARAPENA GAINBEGIRATZEA</u>	
<b>3</b>	3. gaitasun-atala .....	14
	<u>ZERBITZUAK IRUDIKATZEA OBRA ZIBILETAN</u>	

## III PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIRAKO PRESTAKUNTZA

<b>1</b>	1. prestakuntza-modulua: .....	18
	<u>ERAIKUNTZAKO IRUDIKAPENAK</u>	
<b>2</b>	2. prestakuntza-modulua: .....	23
	<u>ERREPIDE- ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAK</u>	
<b>3</b>	3. prestakuntza-modulua: .....	28
	<u>ZERBITZUAK OBRA ZIBILETAN</u>	
<b>4</b>	4. prestakuntza-modulua: .....	30
	<u>OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK IRUDIKATZEKO LANEKOAK EZ DIREN LANBIDE-JARDUNBIDEAK</u>	



#### IV PRESTATZAILEENTZAKO ESKAKIZUNAK, GUNEEN, INSTALAZIOEN ETA EKIPAMENDUEN GUTXIENeko ESKAKIZUNAK, ETA SARTZEKO IRIZPIDEAK

PRESTATZAILEAK .....	36
GUNEAk, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK .....	36
SARTZEKO IRIZPIDEAK .....	37



I PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN  
IDENTIFIKAZIOA



## IZENA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUEN IRUDIKAPENA

## KODEA

EOCO0208

## LANBIDE-ARLOA

Eraikingintza eta obra zibilak

## LANBIDE-EREMUA

Obra-proiektuak eta -segimendua.

## ERREFERENTZIAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZA

EOC202\_3 Eraikingintza-proiektuen irudikapena (1228/2006 EDa, 2006ko urriaren 27koa).

## LANBIDE-PRESTAKUNTZAREN MAILA

3

## GAITASUN OROKORRA

Obra zibileko proiektuen irudikapenak egitea: plano orokorrak eta xehetasun-planoak, fotokonposizioak eta aurkezpenak; errepide- eta urbanizazio-proiektuen diseinua osatzeko proposamenak egitea, eta azterketa eta proiektuen dokumentuak artxibatzeko eta erreproduzitzeko prozesuak ikuskatzea, nagusiaren edo arduradunaren aginduei jarraituz..

## PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA OSATZEN DUTEN GAITASUN-ATALEN ZERRENDAA

- UC0638\_3: Eraikuntzako irudikapenak egitea
- UC0641\_3: Errepide- eta urbanizazio-proiektuak egitea eta haien garapena gainbegiratzea
- UC0642\_3 Zerbitzuak irudikatzea obra zibiletan

## LANBIDE-INGURUNEA

### Lanbide-esparrua

Diseinuaren arloan lan egiten du, langile autonomo gisa edo enpresa txiki, ertain eta handietako soldatapeko langile gisa, nagusiki enpresa pribatuetan. Lanbide-jarduera arautua du.

### Ekoizpen-sektoreak

Ingeniaritza-bulegoak, aholkularitzak, urbanizazio-sustatzailak, obra zibileko eraikuntza-enpresak, enpresa emakidadunak eta ustiapenekoak, eta administrazio publikoak.

### Lanbideak edo lanpostuak

3010.004.8 Eraikuntzako delineatzailea.

3010.005.9 Eraikingintzako delineatzaile teknikoa.

Errepideetako delineatzaile projektugilea.

Urbanizazioko delineatzaile projektugilea.

Obra zibileko delineatzailea.

Hiriko zerbitzuen delineatzailea.



## PRESTAKUNTZA-MODULUEN ETA -ATALEN ZERRENDA ETA HAIEN IRAUPENA

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ORDUAK	PRESTAKUNTZA-ATALAK	ORDUAK
MF0638_3 Eraikuntzako irudikapenak (zeharkakoa)	190	UF0306: Datuen azterketa eta planoen irudikapena (zeharkakoa)	90
		UF0307: Irudikapen grafikoa eta maketagitza (zeharkakoa)	70
		UF0308: Dokumentuak egitea eta artxibatzea (zeharkakoa)	30
MF0641_3 Errepide- eta urbanizazio-proiektuak	200	UF0309: Eraikuntza-proiektuen azterketa (zeharkakoa)	80
		UF0312: Errepideen eta hiri-bideen trazadura egiteko prozesuak	80
		UF0313 Trazadurak egitea	40
MF0642_3 Zerbitzuak obra zibiletan	90		
MP0074 Obra zibileko proiektuak irudikatzeko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideen modulua	120		
<b>ORDUAK, GUZTIRA</b>	<b>600</b>		





## II LANBIDE-PROFILA

1. gaitasun-atala  
ERAIKUNTZAKO IRUDIKAPENAK EGITEA

---

2. gaitasun-atala  
ERREPIDE- ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAK EGITEA ETA  
HAIEN GARAPENA GAINBEGIRATZEA

---

3. gaitasun-atala  
ZERBITZUAK IRUDIKATZEA OBRA ZIBILETAN

---

1

2

3



# 1

## 1. gaitasun-atala: ERAIKUNTZAKO IRUDIKAPENAK EGITEA

Kodea: UC0638\_3

### Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Argibideei eta krokisari jarraikiz, eraikuntza-proiektuen goitiko bisten, aurretiko bisten eta xehetasunen irudikapenak egitea, eraikuntza-planoak definitzeko, ordenagailuz lagundutako diseinuak erabiliz, abiapuntuko datuak errespetatuz, eta kurbimetriak eta planimetriak kalkulatzuz.

BI1.1 Abiapuntuko datuak (argibideak, zerrendak, krokisak eta beste) ordenatu eta aztertu egiten dira, eta irudikapena erabat definitzeko beharrezkoa den informazioan dauden hutsuneak eta akatsak detektatzen dira.

BI1.2 Marrazkiak zehaztutako eskalan egiten dira, eta bertsio informatikoa bereiz daitezkeen marrazki-entitateek osatzen dute, abiapuntuko krokisekin bat etorritik.

BI1.3 Erabiltzen diren kotak, errotulazioa eta sinbologia argiak eta zehatzak dira; neurri egokia dute, eta obra gauzatzean erabiltzea errazten dute.

BI1.4 Erabiltzen den planoak ongi orientatuta dago; erabilitako sinboloen legenda du, eta baita objektuak, eskalak, zenbakia, fitxategi-kodea, idazketa-data eta behar den beste edozein informazio identifikatzen duen datuen kartela ere.

BI1.5 Zehaztutako arau eta/edo akordioei dagozkien sinbologia eta legendak erabiltzen dira.

BI1.6 Erabiltzen den informazio grafikoa ongi egituratuta dago euskarri informatikoan, eta ikurrak marrazki-entitate unitarioei dagozkie; marrazki-geruza desberdinak esleitzen zaizkio lerroen eta puntuen gai-multzo bakoitzari.

BI1.7 Planoa adierazitako epean egiten da, eskatutako eskalan aurkezten da, ongi artxibatzen da, eta, hala dagokionean, lagundutako beste diseinu-programa batzuetan edo aplikazio espezifikoetan erabiltzeko truke-fitxategi moduan esportatzen da.

BI1.8 Eskuz egiten diren kurbimetriak eta planimetriak baldintza hauek betetzen dituzte:

- Neurtu beharreko lerroak segmentutan diskretizatzen dira.
- Neurtu beharreko azalera poligono bidez diskretizatzen dira, edo eskuragarri dagoen planimetro-ereduak barne har ditzakeen azaleretan zatikatzen dira.
- Neurriak kurbimetro edo planimetroarekin hartzeko, lerroak edo ingeradak zeharkatzen dira, eta irakurketa ongi interpretatzen da.
- Poligono bidezko neurketak egiteko, dimentsioak banaka neurtu eta dagokien poligonoaren formulak aplikatzen dira.
- Batuketan eta eskala-aldaketan kalkuluak akatsik eta okerrik gabe egiten dira.

LB2: Beharrezko elementuen eta lurzoruaren sekzioak eta profilak egitea eta irudikatzea, planoak definitzeko, goitiko eta aurretiko bistetatik abiatuz, irudikapena zehaztutako eskaletara doituz, eta ageriko eta ezkutuko eremuak zehaztuz.

BI2.1 Abiapuntuko aurretiko eta goitiko marrazkiak eta planoak ordenatu eta aztertu egiten dira, eta irudikapena erabat definitzeko beharrezkoa den informazioan dauden hutsuneak eta akatsak detektatzen dira.

BI2.2 Sekzioak eta profilak zehaztutako eskalan eta zehaztutako ebaketa-planoa erabiliz egiten dira, eta bertsio informatikoa bereiz daitezkeen marrazki-entitateek osatzen dute, abiapuntuko marrazki eta planoekin bat etorritik.

BI2.3 Erabiltzen diren kotak, errotulazioa eta sinbologia argiak eta zehatzak dira; neurri egokia dute, eta obra gauzatzean erabiltzea errazten dute.

BI2.4 Irudikatzen den planoak goitiko bistaren eskema du, ebakidura-planoaren aipamenarekin. Erabilitako ikurren legenda du, baita objektuak, eskalak, zenbakia, fitxategi-kodea, idazketa-data eta behar den beste edozein informazio identifikatzen duen datuen kartela ere.

BI2.5 Zehaztutako arau eta/edo akordioei dagozkien sinbolo eta legendak erabiltzen dira.

BI2.6 Erabiltzen den informazio grafikoa ongi egituratuta dago euskarri informatikoan, eta ikurrak marrazki-entitate unitarioei dagozkie; marrazki-geruza desberdinak esleitzen zaizkio lerroen eta puntuen gai-multzo bakoitzari.

BI2.7 Planoa adierazitako epean egiten da, eskatutako eskalan aurkezten da, ongi artxibatzen da, eta, hala dagokionean, lagundutako beste diseinu-programa batzuetan edo aplikazio espezifikoetan erabiltzeko truke-fitxategi moduan esportatzen da.

BI2.8 Arro bisualak zehazteko, beharrezkoak diren zeharkako profilak egiten dira plano topografikoetan, eta profiletan lurzoruari dagozkion ukizailleak trazatzen dira.



LB3: Eraikuntza-proiektuen irudikapenak perspektiban egitea, errazago ikusteko, goitiko eta aurretiko bistetatik eta sekzioetatik abiatuz, eta irudikapena eskaletara, irudikapen-sistemara eta marraduretara doitzuz.

BI3.1 Abiapuntuko aurretiko eta goitiko nahiz sekzioen marrazkiak eta planoak ordenatu eta aztertu egiten dira, eta irudikapena erabat definitzeko beharrezkoa den informazioan dauden hutsuneak eta akatsak detektatzen dira.

BI3.2 Perspektibak zehaztutako eskalan eta zehaztutako irudikapen-sistemak erabiliz egiten dira, eta bertsio informatikoa bereiz daitezkeen marrazki-entitateek osatzen dute, abiapuntuko marrazki eta planoekin bat etorritik.

BI3.3 Erabiltzen diren perspektibaren parametroek eta baliabide grafikoek irakurketa errazten dute, edo irudikapena erakargarriago egiten dute.

BI3.4 Egiten den planoak objektuak, eskalak, zenbakia, fitxategi-kodea, idazketa-data eta behar den beste edozein informazio identifikatzen duen datuen kartela du.

BI3.5 Erabiltzen den informazio grafikoa ongi egituratuta dago euskarri informatikoan, eta ikurrak marrazki-entitate unitarioei dagozkie; marrazki-geruza desberdinak esleitzen zaizkio lerroen eta puntuen gai-multzo bakoitzari.

BI3.6 Planoa adierazitako epean egiten da, eskatutako eskalan aurkezten da, ongi artxibatzen da, eta, hala dagokionean, lagundutako beste diseinu-programa batzuetan edo aplikazio espezifikoean erabiltzeko truke-fitxategi moduan esportatzen da.

LB4: Eraikuntza-proiektuen fotokonposizioak egitea eta muntatzea, errazago bistartzeko eta proiektuaren aurkezpena egiteko, perspektiban edo maketan, memoriaren edukietatik eta bi dimentsioko irudikapenetatik abiatuz.

BI4.1 Abiapuntuko marrazkiak eta argazkiak ordenatu eta aztertu egiten dira, eta beste baliabide grafiko batzuekin osatu; eskuragarri dagoen informaziotik, aurkezpen argi eta erakargarriena egiten lagunduko duen informazioa aukeratzen da.

BI4.2 Obrak izango dituen akaberen arabera definitzen dira betegarriaren kolore- eta testura-parametroak.

BI4.3 Konposizioa eraikuntzaren erabilera-baldintzei dagozkien baliabide grafikoekin eta objektuekin osatzen da, eta euskarri informatikoan egituratzen da, marrazki-geruzak esleituz elementu bakoitzari edo elementuen gai-multzo bakoitzari.

BI4.4 Lortzen den irudikapena proiektuaren irudi adierazkor eta erakargarria da, eta informazio grafikoa eta idatzizkoa konbinatzen ditu.

BI4.5 Aurkezpena adierazitako epean egiten da, eta proiektuaren oinarritzko ildoak jasotzea sinplifikatzen duen euskarri batean.

LB5: Maketak egitea, eraikuntza-proiektuak errazago ikusteko, bi dimentsioko irudikapenetatik eta perspektibetatik abiatuz.

BI5.1 Abiapuntuko marrazkiak eta planoak ordenatu eta aztertu egiten dira, eta hiru dimentsioko irudikapena erabat definitzeko beharrezkoa den informazioan gauden hutsuneak eta akatsak detektatzen dira.

BI5.2 Materialak obraren akaberen edo maketaren helburuaren arabera aukeratzen dira.

BI5.3 Erabiltzen diren tresnek aukeratutako materialekin erabiltzeko erabilera-baldintza eta aplikazio-baldintza espezifikoak dituzte.

BI5.4 Eraikinaren erabilerei erreferentzia egiten dieten miniaturazko elementuekin osatzen da maketa.

BI5.5 Kolore- eta testura-parametroek eta miniaturek maketa erakargarriago egiten dute.

BI5.6 Maketa zehaztutako epean egiten da, ezarritako eskalan, eta abiapuntuko marrazki eta planoekin bat etorritik.

LB6: Proiektuen dokumentuak prestatzea, entregatzeko, eta muntatzen, kopiatzen eta paperean edo euskarri informatikoan artxibatzen laguntzea.

BI6.1 Jatorrizko planoaren papereko kopiak argiak dira, eta erosotasunez irakur daitezke.

BI6.2 Papereko planoak ongi ebakita eta tolestuta daude, eta eskatutako neurrikoak dira.


BI6.3 Plano informatizatuak zehaztutako formatu eta neurrietan aurkezten dira.

BI6.4 Identifikazioa, kontserbazioa eta aurkitzeko erraztasuna bermatuz artxibatzen da proiektua.

## Lanbide-testuingurua:

### Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Planoak ebakitzeko eta koadernatzeko tresnak eta materiala. Marrazketa teknikoko mahaia eta materiala. Kurbitmetroak eta planimetroak. Maketak egiteko materiala. Eskulanetako eta arte plastikoetako tresnak. Artxiiboak, planoak gordetzeko altzariak, plano-tutuak. Ekipo eta sare informatikoak: ordenagailuak, memoria eramangarriak, eskanerrak, inprimagailuak, marrazleak, datu-grabagailuak, fotokopiagailuak eta argazki-kamerak. Diseinu lagunduko aplikazioak eta ingurune informatikoak. Artxibatze aplikazioak eta material informatikoa. Bulegotika-aplikazioak.



### Lanaren emaitza edo produktuak

Eraikingintzako eta obra zibiletako proiektuen goitiko eta aurretiko bisten, sekzioen, profilen eta perspektiben marrazkiak. Eraikingintzako eta obra zibiletako proiektuetarako planoak. Luzeren eta azalaren neurketa. Arro bisualen zehaztapena. Eraikingintzako eta obra zibiletako proiektuetarako fotokonposizioak, maketak eta irudikapenak. Eraikingintzako eta obra zibiletako proiektuen kopiak eta fitxategiak paperean eta euskarri digitalean.

### Erabilitako edo sortutako informazioa

Kartografia, paperean edo euskarri digitalean. Eraikingintzako eta obra zibiletako proiektuen goitiko eta aurretiko bisten, sekzioen, profilen eta perspektiben marrazkiak eta planoak. Ekipo eta sare informatikoak erabiltzeko eskuliburuak. Diseinu lagunduko, artxibatze eta bulegotikako aplikazioak erabiltzeko eskuliburuak. Taldeburuaren ahozko eta idatzizko argibideak.

## 2. gaitasun-atala: ERREPIDE- ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAK EGITEA ETA HAIEN GARAPENA GAINBEGIRATZEA

Kodea: UC0641\_3

### Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Norberaren eta bere ardurapean dituen proiektura atxikitako langileen lanaren plangintza egitea, eta antolatzea, lanak modu koordinatuan eta zehaztutako kalitate- eta epe-baldintzei jarraikiz egiten direla bermatzeko.

BI1.1 Abiapuntuko egoera aztertze, finkatutako epeak betetzeko zer baliabide behar diren zehazten da.

BI1.2 Proiektua idazten parte hartuko duten eragileen erantzukizunak jaso, bereganatu, ezarri eta/edo komunikatu egiten dira, eta haien arteko harremanak argitu.

BI1.3 Norberaren erantzukizun eta autonomiatik kanpoko erabakiak dagozkien argibideak jasoz zehazten dira.

BI1.4 Argibideak zehatz eta argi ematen dira, behar besteko aurrerapenez, eta hartzailak ulertu dituela ziurtatzen da.

BI1.5 Lan-planak proiektuaren izaerarako egokiak diren metodoak eta prozedurak izan behar ditu.

BI1.6 Lan-planak baliabideen errendimenduetara eta zehaztutako epeetara egokitzen den lan-sekuentzia izan behar du.

BI1.7 Lan-plana eguneratu egiten da, proiektuan, epeetan edo abiapuntu-egoeran egindako aldaketetara egokitzeko.

LB2: Informazioa lortzea eta datuak biltzea proiektua garatzeko, abiapuntu gisa proiektuaren aurretiko azterketak hartuz, informazioa ordenatuz eta lekuan bertan egindako neurketekin osatuz.

BI2.1 Beharrezkoa den informazioa abiapuntuko beharrei erreparatuz zehazten da, eta informazioa lortzeko puntu eta kanalak ere finkatzen dira.

BI2.2 Diseinuan erabiltzeko arauak eta gomendioak zehaztu egiten dira.

BI2.3 Proiektua zerrenda, krokis eta plano bidez definitzeko beharrezkoa dena aukeratuz antolatzen eta aztertzen da lortutako informazioa.

BI2.4 Proiektuaren irismena aztertu, eta, kasu bakoitzean, araudira edo emandako zehaztapenetara doitzen da.

BI2.5 Identifikazioa, kontserbazioa eta aurkitzeko erraztasuna bermatuz artxibatzen da informazioa.

BI2.6 Datu-baseetatik abiatuz erreproduzi daitezkeen obraren xehetasun argitzaileak eta elementu bereziak zehaztu eta lortu egiten dira.

BI2.7 Lekuan bertan lortutako neurriak ongi adierazten eta kotatzen dira krokisean, ondoren erraza eta zehatza izan dadin datu horien erabilera.

LB3: Trazaduren eta kubikazioen kalkuluak egitea dagozkien planoak eta neurketak egiteko, aplikazio informatiko espezifikoko erabiliz eta abiapuntu gisa krokisa eta aurretiko informazio idatzi eta ahozkoa hartuz.

BI3.1 Lur-eremuaren eredu digitala aplikazio informatikoan sartzen da, formatua egokitzen zaio, eta egiaztatzen da proiektuaren eremu osoa hartzen duela.



BI3.2 Zehaztasun handiagoz kokatu behar diren bideei edo beste elementu batzuei buruzko datuak sartzen dira aplikazioan

BI3.3 Diseinuari buruzko datuak sartzen dira aplikazioan, bereiziz zer datu zehaztu dituen nagusiak edo indarrean den araudiak, zer datu lortu diren datuak biltzeko fasean eta zer datu diren ohikoak.

BI3.4 Araudiak edo arduradun edo nagusiak emandako aginduekin erkatzen dira lortzen diren trazadurak eta profilak, eta, ez badatoz bat, egin daitezkeen bariazioak zehazten eta gauzatzen dira.

BI3.5 Lortzen diren trazadurak eta profilak aurrez ezarritako formatuaren arabera aurkezten zaizkio nagusiari edo arduradunari, eskala horizontala eta bertikala irudikapen-beharretara egokituz.

BI3.6 Zeharkako profilak definitzen dira sekzio berezietan eta behar denetan, ezarritako banantze-tartearen arabera, eta irudikatzen dira ezpondek lur-eremuarekin bat egiten duten puntuak.

BI3.7 Lur-mugimendua kalkulatzeko, nagusiak zehaztutako kubikazio-aukerak edo ohiko jardunaren arabera aukeratutakoak aplikatzen dira, neurketa-bikoizketa saihestuz elementuen arteko lotuneetan eta elkarguneetan.

BI3.8 Lurren kubikazioaren emaitzak tarteka banakatuta eta/edo laburpen-koadro batean multzokatuta aurkezten dira, materialak sailkatzeko ezarritako formatuaren arabera.

BI3.9 Trazadura zentzuzkoak proposatzen dira obrek eragindako behin-behineko desbideratzeetarako, betiere bideen kategoriarara eta behin-behinekotasunaren kondizioetara egokitutakoak.

LB4: Seinalizazio- (horizontal eta bertikal), euste- eta balizaje-sistemetako elementuak non jarri behar diren zehaztea eta planoetan definitzea, indarrean den araudi tekniko aplikatuz eta harekin lotutako gomendioei jarraituz.

BI4.1 Abiapuntuko egoera aztertzeko, trazaduraren sekzio bereziak zehazten dira, eta araudi tekniko espezifikoa artikulatuak eta aplikatu beharreko gomendioak identifikatzen dira.

BI4.2 Erabiltzen diren seinalizazio-, euste- eta balizaje-sistemetako elementuek eta haien kokapenak proiektuaren eta indarrean den araudiaren espezifikazioak betetzen dituzte, eta/edo haiekin lotutako gomendioak betetzen dituzte, ahal den neurrian.

BI4.3 Seinalizazio-, euste- eta balizaje-sistemak oso-osorik definitzen dira, zehaztuz zer motatakoak diren eta non kokatu behar den elementu bakoitza.

BI4.4 Obra-zatietarako edo behin behineko desbideratzeetarako seinalizazio-, euste- eta balizaje-sistemak oso-osorik definitzen dira, zehaztuz zer motatakoak diren eta non kokatu behar den elementu bakoitza.

BI4.5 Orientazio-seinaleetako mezuak baldintza geografikoak edo bideari lotutako ezaugarriak kontuan hartuz zehazten dira.

LB5: Hiri-altzarien kokapena erabakitzea eta planoetan definitzea, indarrean den araudi tekniko aplikatuz eta harekin lotutako gomendioei jarraituz.

BI5.1 Abiapuntuko egoera aztertzeko, bide-trazaduraren sekzioak zehazten dira, eta araudi tekniko eta/edo urbanistikoaren artikulatuak eta aplikatu beharreko gomendioak identifikatzen dira.

BI5.2 Erabiltzen diren hiri-altzarietako elementuek eta haien kokapenak proiektuaren eta indarrean den araudiaren espezifikazioak betetzen dituzte, eta/edo haiekin lotutako gomendioak betetzen dituzte, ahal den neurrian.

BI5.3 Orientazio-seinaleetako mezuak hiri-bilbearen ezaugarriak edo bideari lotutako ezaugarriak kontuan hartuz zehazten dira.

LB6: Seinalizazio- (horizontal eta bertikal), euste- eta balizaje-sistemak eta haien eta hiri-altzarien trazadura grafikoki irudikatzea eta proiektuaren planoetan definitzea, abiapuntu gisa hartuz egindako krokisak, marrazkiak eta obra linealen geometria-aplikazioen bidez lortutako trazadurak.

BI6.1 Erabiltzen diren planoak bat datoz abiapuntuan egindako krokisekin, marrazkiekin eta trazadurekin, eta bertsio informatikoa bereiz daitezkeen marrazki-entitateek osatzen dute.

BI6.2 Erabiltzen diren kotak, errotulazioa eta sinbologia argiak eta zehatzak dira; neurri egokia dute, eta obra gauzatzean erabiltzea errazten dute.

BI6.3 Erabiltzen den informazio grafikoa ongi egituratuta dago euskarri informatikoan, eta ikurrak marrazki-entitate unitarioei dagozkie; marrazki-geruza desberdinak esleitzen zaizkio lerroen eta puntuen gai-multzo bakoitzari.

BI6.4 Lortzen den planoak erabiltzeko ikurren legenda du, baita objektuak, eskalak, zenbakia, fitxategi-kodea, idazketa-data eta behar den beste edozein informazio identifikatzen dituen datuen kartela ere.

BI6.5 Planoa adierazitako epean egiten da, eskatutako eskalan aurkezten da, ongi artxibatzen da, eta, hala dagokionean, lagundutako beste diseinu-programa batzuetan edo aplikazio espezifikoetan erabiltzeko truke-fitxategi moduan esportatzen da.

LB7: Irudikatutako elementuak neurtzea, aurrekontuetako partidak definitzeko; neurketa-aula bat zehaztea, eta zehatz betetzea.

BI7.1 Lortzen den neurketa-aulak irudikatutako elementu guztiak jasotzen ditu, kapitulutan ordenatuta, eta izaeraren arabera bereizita.

BI7.2 Egindako neurketak zehaztutako irizpideetara doitzen dira.

BI7.3 Neurketak bat datoz dimentsioekin eta irudikatutako elementu-kopuruarekin.



LB8: Proiektua eta haren aurkezpena osatzen dituzten dokumentuak gainbegiratzea, forma-baldintzak betetzen diren eta ongi artxibatu diren aztertzeko.

BI8.1 Aztertzen da planoetan jasotako goitiko eta aurretiko bistak eta profilak nahikoak ote diren proiektua definitzeko; harekin bat datozen eta identifikatuta eta behar bezala adierazita dauden aztertzen da.

BI8.2 Aztertzen da irudikatutako xehetasunak obra ongi gauzatzeko behar bestekoak ote diren.

BI8.3 Planoak ezarritako eskalan eta obra gauzatzeko behar besteko kotak ezarrita marraztu diren aztertzen da.

BI8.4 Ematen den proiektua osorik dago; karpeta eta dokumentu guztiak aurkezten dira, eskatutako kopia-kopuruarekin eta eskatutako formatuan.

BI8.5 Artxibatutako proiektua erraz eta azkar identifikatzen eta aurkitzen da.

## Lanbide-testuingurua:

### Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Marrazketa teknikoko mahaia eta materiala. Artxiboak, planoak gordetzeko altzariak, plano-tutuak. Neurketa-zintak. Hirigintzako araudiaren datu-baseak. Araudiaren eta gomendio teknikoaren datu-baseak. Eraikuntza-xehetasunen datu-baseak. Etxe komertzialen katalogoak. Eraikuntzarekin lotutako Interneteko webguneak. Ekipo eta sare informatikoak: ordenagailuak, memoria eramangarriak, eskanerrak, inprimagailuak, marrazleak, datu-grabagailuak, argazki-kamerak. Diseinu lagunduko aplikazioak eta ingurune informatikoak. Obra linealen geometriako aplikazio eta ingurune informatiko espezifikak. Seinalizazioa diseinatzeko aplikazioak. Neurketak eta aurrekontuak egiteko aplikazioak eta ingurune espezifikak. Artxibatze aplikazioak eta material informatikoa. Bulegotika-aplikazioak.

### Lanaren emaitza edo produktuak

Lanerako plana. Proiektuari buruzko datuak hartzea. Errepide- eta urbanizazio-proiektuetarako trazaduren eta profilen marrazkiak eta planoak. Errepide- eta urbanizazio-proiektuetarako seinalizazio-, balizaje- eta euste-sistemen marrazkiak eta planoak. Urbanizazio-proiektuetako hiri-altzarietarako marrazkiak eta planoak. Proiektuaren kubikazioak eta neurketak. Proiektua ondo aurkezten eta artxibatzen dela gainbegiratzea.

### Erabilitako edo sortutako informazioa

Kartografia, paperean edo euskarri digitalean. Goitiko bisten, luzetarako eta zeharkako profilen, eta obra zibileko eta urbanizazioko eraikuntza-xehetasunen krokisak eta marrazkiak. Bideak diseinatzeko datuak. Azterketa-ordenak. Errepideei buruzko araudia eta gomendio teknikoak. Hirigintzako araudia. Eraikuntza-xehetasunak. Proiektuaren kubikazioak eta neurketak. Ekipo eta sare informatikoak erabiltzeko eskuliburuak. Gai hauei buruzko aplikazio informatikoak erabiltzeko eskuliburuak: diseinu lagundua, obra linealen geometria, seinalizazioa, neurketak eta aurrekontuak, artxiboa eta bulegotika. Taldeburuaren ahozko eta idatzizko argibideak.

# 3

## 3. gaitasun-atala:

## ZERBITZUAK IRUDIKATZEA OBRA ZIBILETAN .

Kodea: UC0642\_3

### Lanbide-burutzapenak eta burutzapen-irizpideak:

LB1: Proiektuko zerbitzuak garatzeko informazioa eta datuak biltzea, aurretiko azterketak oinarri hartuz.

BI1.1 Beharrezkoa den informazioa abiapuntuko beharrei erreparatuz zehazten da, eta informazioa lortzeko puntu eta kanalak ere finkatzen dira.

BI1.2 Proiektua zerrenda, krokis eta plano bidez definitzeko beharrezkoa dena aukeratuz antolatzen eta aztertzen da lortutako informazioa.

BI1.3 Proiektuaren irismena aztertu, eta, kasu bakoitzean, araudira edo emandako zehaztapenetara doitzen da.

BI1.4 Identifikazioa, kontserbazioa eta aurkitzeko erraztasuna bermatuz artxibatzen da informazioa.

BI1.5 Diseinuan aplikatzeko arauak eta gomendioak zerbitzu bakoitzerako zehazten dira.

BI1.6 Datu-baseetatik abiatuz erreproduzi daitezkeen obraren xehetasun argitzaileak eta elementu bereziak zehaztu eta lortu egiten dira.



LB2: Eraikinetako saneamendu- eta drainatze-zerbitzuen, eta ur- eta gas-hornidurako zerbitzuen kalkuluen emaitzak interpretatzea, argibideak kontuan izanik zerbitzua osatzen duten elementuen aukeraketa eta/edo dimentsioak osatzeko oinarritzko kalkuluak egiteko.

- BI2.1 Egiaztatzen da planoak definitzeko behar diren elementu guztiak zehaztuta eta/edo dimentsionatuta daudela.
- BI2.2 Hein batean definituta dauden elementuen dimentsionatzeak edo aukeraketak horri buruzko argibideen arabera osatzen dira.
- BI2.3 Zehaztu behar diren sareen elementu-motak eta osagaiak abiapuntuko datu zuzenak erabiliz aukeratu dira, eta araudian jasotako edo fabrikatzaileak aurreikusitako formulak, taulak eta abakoak erabiltzen dira, akatsik eta nahasterik gabe.
- BI2.4 Aukeratu diren sarearen elementuen dimentsioak osatzeko kalkuluek abiapuntuko datu zuzenak erabiltzen dituzte, eta araudian jasotako edo fabrikatzaileak aurreikusitako formulak, taulak eta abakoak erabiltzen dira, akatsik eta nahasterik gabe.
- BI2.5 Sare-elementuen moten, merkataritza-marken eta dimentsioen zehaztapenen berri nagusiari edo arduradunari ematen zaio, eta izan litezkeen aldaerak jasotzen dira.

LB3: Energia elektrikoko, argiteria publikoko eta telekomunikazioetako zerbitzuen kalkuluen emaitzak interpretatzea, argibideak kontuan izanik zerbitzua osatzen duten elementuen aukeraketa eta/edo dimentsioak osatzeko oinarritzko kalkuluak egiteko.

- BI3.1 Egiaztatzen da planoak definitzeko behar diren elementu guztiak zehaztuta eta/edo dimentsionatuta daudela.
- BI3.2 Hein batean definituta dauden elementuen dimentsionatzeak edo aukeraketak horri buruzko argibideen arabera osatzen dira.
- BI3.3 Zehaztu behar diren sareen elementu-motak eta osagaiak abiapuntuko datu zuzenak erabiliz aukeratu dira, eta araudian jasotako edo fabrikatzaileak aurreikusitako formulak, taulak eta abakoak erabiltzen dira, akatsik eta nahasterik gabe.
- BI3.4 Aukeratu diren sarearen elementuen dimentsioak osatzeko kalkuluek abiapuntuko datu zuzenak erabiltzen dituzte, eta araudian jasotako edo fabrikatzaileak aurreikusitako formulak, taulak eta abakoak erabiltzen dira, akatsik eta nahasterik gabe.
- BI3.5 Sare-elementuen moten, merkataritza-marken eta dimentsioen zehaztapenen berri nagusiari edo arduradunari ematen zaio, eta izan litezkeen aldaerak jasotzen dira.

LB4: Zerbitzuen irudikapenak egitea, proiektuaren planoak definitzeko, aurretiazko kalkuluekin eta obra osatzen duten sistemen elementuen kokapenarekin eta baterako existentziarekin bat etorriz.

- BI4.1 Irudikatzen diren sarearen eroanbideen trazadurek beste sare batzuen trazadurekin duten interakzioa kontuan hartzen da, araudia errespetatzen da, eta arrazoizkoak dira eraikuntzaren eta funtzioaren ikuspegitik.
- BI4.2 Irudikatzen diren sarearen elementu bereziak kokatzeko, kontuan hartzen da beste sare batzuekiko interakzioa, baita sisteman bertan duten txertaketa ere, araudia errespetatzen da, eta kokapenak arrazoizkoak dira eraikuntzaren eta funtzioaren ikuspegitik.
- BI4.3 Marrazkiak egiteko, eraikuntza-azalpenak emateko aukera eskaintzen duten eta obra gauzatzean aplikatzea errazten duten irudikapen-eskalak erabiltzen dira, eta bertsio informatikoa bereiz daitezkeen marrazki-entitateek osatzen dute.
- BI4.4 Erabiltzen diren kotak, errotulazioa eta sinbologia argiak eta zehatzak dira; neurri egokia dute, eta obra gauzatzean erabiltzea errazten dute.
- BI4.5 Erabiltzen den informazio grafikoa ongi egituratuta dago euskarri informatikoan, eta ikurrak marrazki-entitate unitarioei dagozkie; marrazki-geruza desberdinak esleitzen zaizkio lerroen eta puntuen gai-multzoko bakoitzari.
- BI4.6 Lortzen den planoak erabilitako ikurren legenda du, baita objektuak, eskalak, zenbakia, fitxategi-kodea, idazketa-data eta behar den beste edozein informazio identifikatzen dituen datuen kartela ere.
- BI4.7 Planoa adierazitako epean egiten da, eskatutako eskalan aurkezten da, ongi artxibatzen da, eta, hala dagokionean, lagundutako beste diseinu-programa batzuetan edo aplikazio espezifikoetan erabiltzeko truke-fitxategi moduan esportatzen da.

LB5: Irudikatutako zerbitzuak neurtzea, aurrekontuetako partidak definitzeko; neurketa-taula bat zehaztea, eta zehatz betetzea.

- BI5.1 Lortzen den neurketa-taulak irudikatutako elementu guztiak jasotzen ditu, kapitulutan ordenatuta, eta izaeraren arabera bereizita.
- BI5.2 Egindako neurketak zehaztutako irizpideetara doitzen dira.
- BI5.3 Neurketak bat datoz dimentsioekin eta irudikatutako elementu-kopuruarekin.



## Lanbide-testuingurua:

### Zerbitzuak egiteko eta/edo sortzeko baliabideak

Marrazketa teknikoko mahaia eta materiala. Artxiboak, planoak gordetzeko altzariak, plano-tutuak. Hirigintzako araudiaren datu-baseak. Araudiaren eta gomendio teknikoaren datu-baseak. Zerbitzu-sareetako osagaien datu-baseak. Etxe komertzialen katalogoak. Eraikuntzarekin lotutako Interneteko webguneak. Ekipo eta sare informatikoak: ordenagailuak, memoria eramangarriak, eskanerrak, inprimagailuak, marrazleak, datu-grabagailuak, argazki-kamerak. Diseinu lagunduko aplikazioak eta ingurune informatikoak. Zerbitzu-sareak diseinatzeko aplikazio informatikoak. Neurketak eta aurrekontuak egiteko aplikazioak eta ingurune espezifikoak. Artxibatze aplikazioak eta material informatikoa. Bulegotika-aplikazioak.

### Lanaren emaitza edo produktuak

Proiektuari buruzko datuak hartzea. Urbanizazio- eta azpiegitura-proiektuetarako zerbitzu hauen dimentsioak eta trazadura interpretatzea: saneamendu- eta drainatze-hodiak, ur- eta gas-hornidura, energia elektrikoaren banaketa, argiteria publikoa eta telekomunikazioak. Urbanizazio- eta azpiegitura-proiektuetarako zerbitzuen trazadura eta profilen marrazkiak eta planoak. Urbanizazio- eta azpiegitura-proiektuetarako zerbitzu hauen elementuen marrazkiak eta planoak: saneamendu- eta drainatze-hodiak, ur- eta gas-hornidura, energia elektrikoaren banaketa, argiteria publikoa eta telekomunikazioak. Proiektuaren neurketak.

### Erabilitako edo sortutako informazioa

Kartografia, paperean edo euskarri digitalean. Obra zibileko eta urbanizazioko proiektuetarako zerbitzuen goitiko bisten eta profilen krokisak eta marrazkiak. Zerbitzuak diseinatzeko datuak. Hiriko zerbitzuetarako eta azpiegituretarako araudia eta gomendio teknikoak. Hirigintzako araudia. Eraikuntza-xehetasunak. Proiektuaren neurketak. Ekipo eta sare informatikoak erabiltzeko eskuliburuak. Gai hauei buruzko aplikazio informatikoak erabiltzeko eskuliburuak: diseinu lagundua, zerbitzu-sareen diseinua, neurketak eta aurrekontuak, artxiboa eta bulegotika. Taldeburuaren ahozko eta idatzizko argibideak.



## III PRESTAKUNTZA

1. prestakuntza-modulua:  
ERAIKUNTZAKO IRUDIKAPENAK

---

1

2. prestakuntza-modulua:  
ERREPIDE- ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAK

---

2

3. prestakuntza-modulua:  
ZERBITZUAK OBRA ZIBILETAN


---

3

4. prestakuntza-modulua:  
OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK IRUDIKATZEKO LANEKOAK EZ DIREN  
LANBIDE-JARDUNBIDEAK

---

4



# 1

## 1. prestakuntza-modulua: ERAIKUNTZAKO IRUDIKAPENAK

---

**Kodea:** MF0638\_3

**Gaitasun-atal honi lotuta dago:** UC0638\_3 Eraikuntzako irudikapenak egitea.

**Iraupena:** 190 ordu

### 1.1 prestakuntza-atala DATUEN AZTERKETA ETA PLANOEN IRUDIKAPENA

**Kodea:** UF0306

**Iraupena:** 90 ordu

**Gaitasun-erreferentea:** Prestakuntza-atal hau bat dator LB1, LB2 eta LB3rekin.

### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Eraikuntzako irudikapen-motak aztertzea: helburuak zehaztea; irudikapen-sistemak, eskalak, sinbologia, errotulazioa eta kotak konparatzea; eta jaso behar duten informazio osagarria deskribatzea.

EI1.1 Eraikuntzako irudikapenak helburuen, irudikapen-sistemen eta eskalen arabera sailkatzea.

EI1.2 Eraikuntzako irudikapen-moten helburuak deskribatzea.

EI1.3 Irudikapen-sistemak konparatzea, eta haien erabilera-eremua zehaztea.

EI1.4 Eraikingintzako eta obra zibiletako proiektuetan ohikoenak diren eskalak zehaztea, eta haien erabilera-eremua zehaztea.

EI1.5 Sinbologiaren, errotulazioaren eta koten beharra arrazoitzea, eta irudikapen-motarekin lotzea.

EI1.6 Irudikapen-mota bakoitzak behar duen informazio osagarria deskribatzea: kokapena, orientazioa, legendak, testu-koadroak, kartelak.

EI1.7 Eraikuntzako irudikapenetako berrikuntza teknologikoaren faktoreak deskribatzea, eta prestakuntza-moduluari lotutako gaitasun-atalean zer eragin duen baloratzea.

A2: Eraikuntzen eta lurzoruaren adierazpen grafikoa lortzea, geometria deskribatzaileko irudikapen-sistema nagusiak aplikatuz, eta krokisak eta marrazkiak eginez.

EI2.1 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, prisma edo zilindro zuzen jakin bat marraztea sistema diedrikoan —oinarritik eta planotik abiatuta—, plano horizontalean etzatea, eta prismaren eta zilindroaren itzal propioak eta itzal jaurtiak aurkitzea diedroaren planoetan, eguzki-argiztapenerako edo argiztapen puntualerako.

EI2.2 Eraikuntza jakin baten ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauden kasu praktiko batean, eraikina bertan dela edo maketa bidez zehaztuta, marrazki edo krokis bidez irudikatzea, baldintza hauei jarraikiz:

- Hiru bistak lortzea.
- Goitiko bista eta/edo sekzioa lortzea plano jakin baten eta emandako irudikapen-sistemetako baten bidez.
- Perspektiba axonometrikoa edo cavaliere perspektiba lortzea, eta itzal propioak eta jaurtiak ere jasotzea eguzki-argiztapenerako edo argiztapen puntualerako.
- Perspektiba konikoa lortzea, eta itzal propioak eta itzal jaurtiak ere jasotzea eguzki-argiztapenerako edo argiztapen puntualerako.

EI2.3 Lurzoru baten plano topografikoaren ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, eta goitiko bistan ardatzaren trazadurak emandako azpiegitura lineal bat dela:

- Luzetarako profila eta zeharkako profilak adierazitako distantziara marraztea, eskala horizontal eta bertikal desberdinetarako.
- Plano topografikoan kokatutako puntu baten arro bisuala zehaztea, eta azalera neurtzea, eskuzko bitartekoak erabiliz.



## Edukiak:

### 1. Oinarrizko trazadurak.

- Eskala formen irudikapenean.
- Proporzioa irudikapen grafikoan.
- Erdikaria, erdibitzailea.
- Triangeluak.
- Poligono erregularrak.
- Zirkunferentziak eta haiekiko ukitzailleak.
- Kurbak (elipsea, obaltoa, hiperbola eta parabola).
- Kurbekiko ukitzailleak.
- Krokisak eta jasotzeak.

### 2. Hainbat sistematan irudikatzea.

- Sistema diedrikoa:
  - Aurretiko proiektzioa eta profilarena.
  - Edozein forma-motaren irudikapena.
  - Itzalak.
- Plano kotatuen sistema:
  - Azalaren eta lurzoruen irudikapena.
  - Zuzenaren eta planoaren arteko perpendikularutasuna.
  - Zuzenaren eta planoaren arteko ebakidura.
  - Arro bisualak.
- Sistema axonometrikoa:
  - Triedroaren, ardatzen graduazioaren eta koadroaren planoaren definizioa.
  - Edozein forma-motaren irudikapena.
  - Itzalak.
  - Kasu partikularrak (isometrikoa eta cavalieri).
- Perspektiba konikoa:
  - Perspektiba definitzeko parametroak.
  - Edozein forma-motaren irudikapena.
  - Itzalak.
- Kolorea irudikapen grafikoan.
- Errotulazioa eta kotazioa.

### 3. Ordenagailuz lagundutako diseinu-aplikazioak erabiltzea eraikuntza-planoak egiteko.

- Inportazio- eta esportazio-formatuak kudeatzea.
- Koordinatuen sistemak.
- Marrazkien egitura: Pixelak, entitateak, solidoak, blokeak, objektuak, geruzak. Geruzen kudeaketa. Bertsioen kudeaketa. Historiala.
- Marrazketa-funtzioak:
  - eskalak, unitateak;
  - pixelak eta entitateak editatzea;
  - blokeak eta liburutegiak editatzea;
  - objektuak editatzea;
  - testuak editatzea.
- Kalkulu-funtzioak: distantzien eta azalaren kalkulua; kotatzeak.
- Betetze- eta koloreztatze-funtzioak.

## 1.2 prestakuntza-atala

## IRUDIKAPEN GRAFIKOA ETA MAKETAGINTZA

Kodea: UF0307

Iraupena: 70 ordu



**Gaitasun-erreferentea:** Prestakuntza-atal hau bat dator LB4 eta LB5rekin.

## Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Eraikuntzen edo eraikuntza-xehetasunen hiru dimentsioko irudikapena lortzea, maketagintzako teknikak erabiliz.

EI1.1 Eraikuntza jakin baten maketa bat egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Maketagintzan erabiltzen diren tresnak identifikatzea eta/edo deskribatzea.
- Maketagintzan erabiltzen diren material jakin batzuk identifikatzea, eta ordezka edo irudika ditzaketen eraikuntzetako edo inguruetakoko material errealekin lotzea.
- Emandako maketa batean irudikatu behar diren lurzoruetako eta eraikuntzetako elementuen materialak proposatzea.
- Maketa jakin bat egiteko zer prozedura erabili behar den zehaztea, eta itxaroten den akabera eta girotzea lortzeko erabiltzen diren miniaturazko elementuak eta amaierako ukituak deskribatzea.
- Aurretiko eta goitiko planoetan emandako eraikuntzaren maketa bolumentrikoa egitea.

A2: Krokis edo marrazkien bidez definitutako eraikuntzen planoak egitea, aplikazio informatikoak erabiliz, eta beharrezko eskalak, formatuak, kodetzeak, errotuluak eta kotak baliatuz.

EI2.1 Plano bat egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, eta irudikatu beharreko eraikuntzaren krokis eta marrazkietatik abiatuz:

- Planoaren konposizioa osatzea, aurreikusitako eskalak doitu, eta krokisak eta marrazkiak zehaztutako praktikaren arabera ordenatuz.
- Planoaren kodetzea osatzea, ohiko hitzarmena baliatuz eta legenda irudikatuz.
- Planoaren errotulazioa osatzea, baimendutako aldaerak proposatuz eta aplikatu beharreko araudia betez.
- Emandako eraikuntza-plano baten kotak osatzea, aplikatu beharreko araudia betez.
- Informazio gehigarria osatzea, kokapen-eskemak, orientazioa, koadro alfanumerikoak, sinbologia eta kartelak gehituz.
- Informazioa aplikazio informatikoaren bidez antolatuzko zer geruza behar diren zehaztea, eta geruzak erlazionatzea, biltegitratzeko, kontsultatzeko eta trukatzeko aukera izanik.

A3: Eraikuntza definituen aurkezpen animatuak sortzea hiru dimentsioko marrazkien bidez, aplikazio informatikoak erabiliz.

EI3.1 Plano bat egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, eta irudikatu beharreko eraikuntzaren krokis eta marrazkietatik abiatuz:

- Marrazkiak proiektuan definitutako materialen arabera egitea.
- Proiekturako egokiak diren atzealdeak sortzea.
- Ereduaren argiztapen naturala eta artifiziala sortzea.
- Eredu argiztatuetan argazkiak eta sekuentzia-grabazioen ibilbideak sortzea.

## Edukiak:

### 1. Eraikuntza-proiektuetako irudiak tratatzeko aplikazioak.

- Inportazio- eta esportazio-formatuak kudeatzea.
- Marrazkien egitura: pixelak, entitateak, solidoak, blokeak, objektuak, geruzak; geruza-kudeaketa; bertsio-kudeaketa; historiala.
- Irudien tratamendua.
- Kolorearen kudeaketa.
- Efektuak eta iragazkiak.
- Irteera grafikoaren administrazioa.

### 2. Hiru dimentsioko irudiak, modelatuak eta animazioak sortzeko aplikazioak erabiltzea.

- 3Dko marrazkia. Solidoak. Gainazalak. Boolean eragiketak eta 3D edizioa.
- Modelatua, argiztapena.
- Eraikuntzako 3Dko marrazkien animazioa.

### 3. Eraikuntzen maketak egitea

- Maketagintzako tresnak.
- Maketak egitean erabiltutako materialak: propietateak, erlazioa irudikatutako eta/edo ordezkatutako materialekin.
- Metodologia: maketak muntatzea eta desmuntatzea, bolumenak eta formak egiteko teknikak, akabera-teknikak.
- Maketen girotzea.
- Elementu gehigarriak miniaturan.
- Maketen argazkia.



#### 4. Eraikuntzako dokumentu grafikoak egitea

- Saillapena: krokisa, eskemak, marrazkiak, planoak, fotokonposizioak, aurkezpenak eta maketak.
- Plano-motak: kokapen-planoak; plano orokorrak; xehetasun-planoak.
- Maketa-motak: errealistak, bolumetrikokoak, azterketakoak, prototipoak, desmuntagarriak, sekzioka banatuak, solairukako garapena dutenak, topografikoak, argiztatuak, animatuak.
- Goitiko bistak, aurretiko bistak, sekzioak, luzetarako eta zeharkako profilak, perspektibak.
- Helburuak:
  - Proiektuan zuzenean nahiz sinbolo bidez irudikatu behar diren elementuak.
  - Kokapena, gauzatzea, aurredefinizioa, bistaratzea, aurkezpena.
- Kurbimetriak eta planimetriak.
- Planoen irakurketa:
  - Eskalak.
  - Sinbologia.
  - Errotuluak.
  - Kotak.
  - Orientazioa.
- Informazio gehigarria (funtzioa, kartelak, testu-koadroak).

### 1.3 prestakuntza-atala

## DOKUMENTUAK KOPIATZEA ETA ARTXIBATZEA

**Kodea:** UF0308

**Iraupena:** 30 ordu

**Gaitasun-erreferentea:** Prestakuntza-atal hau bat dator LB6rekin.

### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Proiektu baten aurkezpena diseinatzea, fotokonposizio teknika infografikoak erabiliz eta irudi birtualak eta informazio-panelak sortuz.

EI1.1 Marrazki edo argazki bidez definitutako eraikuntza baten kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Fotokonposizio bat egiteko behar diren baliabide grafikoak lortzea eta editatzea, Internet bidez, argazkiak ateraz eta/edo eskaneatuz.
- Eraikuntza jakin baten fotokonposizioa egitea, abiapuntuko marrazkietan eta argazkietan nahiz lortutako baliabide grafikoetan oinarrituz, eta aplikazio infografikoak erabiliz proiektatutako azken akaberak lortzeko.

EI1.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, hainbat egilek eraikuntza bakar baterako egindako fotokonposizioak baloratzea eta aukeratzea, eta aukeratzeko edo baztertzeko arrazoiak ematea.

EI1.3 Eraikuntzen konposizioetan, erakargarritasun-irizpideak zehaztea.

EI1.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, proiektu baten aurkezpena egitea, planoen eta/edo maketen eta informazio- edo publizitate-testu edo -koadroen bidez, aplikazio infografikoak eta dokumentuak editatzeko aplikazioak erabiliz.

EI1.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, hainbat egilek proiektu bakar baterako egindako aurkezpenak baloratzea eta aukeratzea, eta aukeratzeko edo baztertzeko arrazoiak ematea.

EI1.6 Eraikuntzen konposizioetan, erakargarritasun-irizpideak zehaztea.

A2: Proiektuaren dokumentu grafikoak eta idatzizkoak kopiatzea eta artxibatzea, dokumentazio-sistema baten bidez zehaztutako kodetzea aplikatuz.

EI2.1 Eraikuntza- eta obra-proiektuetan dokumentazio-sistema bat beharrezkoa zergatik den azaltzea.

EI2.2 Dokumentazio-sistema batek erabiltzen dituen kodetze-printzipioak deskribatzea.

EI2.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, dokumentuak biltegitratzeko eta kontsultarako euskarri materialean artxibatzea, dokumentuak kodetzeko zehaztutako sistema aplikatuz.



EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, biltegitratzeko, kontsultarako eta trukerako euskarri informatikoan emandako dokumentuak artxibatzea, zehaztutako formatuak eta dokumentuak kodetzeko zehaztutako sistema aplikatuz.

## Edukiak:

### 1. Eraikuntza-proiektuen aurkezpena

- Proiektuaren definizioa; proiektu baten dokumentuak.
- Proiektu baten faseak, definizio-maila.
- Proiektuetako dokumentazio-sistema; erregistroa eta kodetzea.
- Eraikingintza-tipologia. Obra zibilen tipologia.
- Proiektuen edo eraikuntzaren enpresaren irudi korporatiboa. Logotipoak, anagramak, enpresa identifikatzen duten koloreak, orrien eta dokumentuen diseinua.
- Euskarrien tratamendua: formatuak, materialak, koadernaketa, artxiboa, erakusketa.
- Proiektuaren dokumentuak muntatzea eta artxibatzea.
- Fotokonposizioa. Lerro eta ingeraden tratamendua.
- Kolorearen tratamendua.
  - Gainjartzea, collagea, motiboak, fokuratzea eta desfokuratzea, distortsioak; testu-tratamendua.
  - Konposizioaren tratamendua.
  - Argiztapenaren tratamendua.

### 2. Eraikuntza-proiektuen bulegoaren kudeaketa.

- Eraikuntza-proiektuetako artxibo- eta bulegotika-aplikazioak.
  - Inportazio- eta esportazio-formatuak kudeatzea.
  - Testuak, grafikoak eta taulak editatzea.
  - Emaizak aurkeztea.
  - Irteera grafikoa.
  - Artxiboa.
- Ekipo eta sare informatikoak eraikuntza-proiektuen bulegoan.
  - Saillapena eta funtzioak: ordenagailuak, eskanerrak, inprimagailuak, marrazleak, memoria eramangarriak, datu-grabagailuak, argazki-kamerak, fotokopiagailuak.
  - Aplikazio-eremua.
- Proiektuen bulegoaren ingurumen-eragina.
  - Energia-aurrezpena.
  - Erosotasuna eta ingurumen-eragina.
  - Materialak birziklatzea.
  - Hondakinen saillapena, eta hondakinak erretiratzeko bitartekoak.
- Segurtasuna eta osasuna proiektuen bulegoan.
  - Arriskuen ebaluazioa.
  - Laneko ingurune segurua.
  - Makina, ekipo eta tresnen erabilera segurua.
  - Material arriskutsuak (toxikoak eta sukoiak).
  - Erosotasun-baldintzak.
  - Ergonomia.
- Berrikuntza teknologikoaren faktoreak eraikuntzako irudikapenetan.
  - Ezarri berri diren material eta teknika berritzaileak.
  - Ezarri berri diren tresna, erreminta eta makina berritzaileak.
  - Ezarri berri diren aplikazio eta ekipo informatiko eta telekomunikazioetako ekipo berritzaileak.
  - Ezarri berri diren antolaketa- eta produkzio-prozesu berritzaileak.



## 2. prestakuntza-modulua: ERREPIDE- ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAK

**Kodea:** MF0641\_3

**Gaitasun-atal honi lotuta dago:** UC0641\_3: Errepide- eta urbanizazio-proiektuak egitea eta haien garapena gainbegiratzea

**Iraupena:** 200 ordu

### 2.1 prestakuntza-atala ERAIKUNTZA-PROIEKTUEN AZTERKETA

**Kodea:** UF0309

**Iraupena:** 80 ordu

**Gaitasun-erreferentea:** Prestakuntza-atal hau bat dator LB1, LB2, LB4 eta LB8rekin.

#### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

